

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERGANZOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari

Kontzeju honek, 2022ko uztailaren 30ean egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldatzeko izapidetutako espedienteari. Horren iragarkia 2022ko abuztuaren 24ko ALHAOn argitaratu zen. Aldaketa hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onetsi da. Horregatik, aldaketa oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Ordenantza honen aldaketa ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza.

I. Xedapen orokorra

1. artikulua

Berganzoko Kontzejuak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da. Ordenantzaren aplikazio eremua kontzejuaren mugarte osoa izango da, baldin eta sareekin lotuta badago.

II. Ordaintzera behartuta daudenak

2. artikulua

Ordaintzera behartuta daude instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen dituztenak. Hornidura eta saneamendu sarearekin lotu behar den etxebizitzaren titularrak ordainduko ditu edateko uraren banaketa sarera eta saneamendu sarera lotzeko eskubideak, etxebizitzetako harguneak badira. Harpidedunak eta administrazio batzarrak hornitze kontratua izenpetu eta harpidedunak kontagailua jarri aurretik ordainduko da ordaindu beharreko zenbatekoa. Gainerako harguneak (askak eta abar...), hargunearen eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

III. Zerbitzua

3. artikulua

Erabiltzaileen edo harpidedunen eta toki administrazioaren arteko harremanak ekonomiko-administratiboak dira, zeinahi dela ere toki administrazioak zerbitzua emateko hautatzen duen kudeaketa sistema eta zeinahi dela ere herritarren beharrak asetzeko erabiltzen dituen langileak eta instalazioak zerbitzura atxikitzeko era.

4. artikulua

Administrazio batzarrak antolatuko du zerbitzua, eta publizitatea emango dio, eta egiaztagutunak emango dizkie zerbitzura atxikitako langileei, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten eta horren bermea izan dezaten.

Jabari publikokoak dira zerbitzuaren obrak eta instalazioak. Administrazio batzarrari dagokio ondasun horiek handitzea inbertsio planen bitartez, zerbitzupeko uren emaria egokia izan dadin eta uren kalitatea hobetu dadin, eta saneamendu sareak eta arazketa sistemak behar bezala bana daitezzen.

5. artikulua

Zerbitzuak ez du izango irabazteko xederik, baina eutsi egin beharko zaio aurrekontuaren orekari, kontzejuak onartutako tarifa beregainak ezarrita.

6. artikulua

Erabiltzaileak agindu orokor hauek beteko ditu zerbitzua erabiltzean:

1. Bere kontsumo eta premietarako baino ez erabiltzea ura, eta neurri gabeko kontsumoa, zarrastelkeria edo beharrik gabeko kontsumoak saihestea, hartara ahalik eta ur gehien egon dadin eskura, ur horniduraren erabiltzaile guztien hobe beharrez.

2. Administrazio batzarrari al bait arinen jakinaraztea instalazio publikoan antzematen den matxura oro, batez ere matxurak isuria eragiten badu, edo edateko ura edo hondakin urak galtzea, edo saneamendu sareko hodiak itotzea. Norbere etxe barruko instalazioan gertatzen diren matxurak ere al bait arinen konpontzen ahaleginduko da.

3. Kontagailua norberak ez aldatzea edo ordeztzea; urez ez hornitzea beste pertsona edo entitate batzuk; ura ez banatzea abonatuaren ustezko maizter edo errentarien artean; eta ez aldatzea, oro har, polizaren baldintzak.

4. Administrazio batzarreko langileei eta, administrazio batzarrekoak izan ez arren, hark kreditatutako langileei erraztea eta ahalbidetzea haien egin beharreko lanak; horretarako, polizan sartuta dagoen sare, instalazio, finka, etxebizitza, lokal edo eremura sartzen utziko zaie, hornidura eta saneamendu sistemak ikuskatzeko edo kontagailua irakurtzeko.

5. Administrazio batzarrak eskatutako datuak, zerbitzuei edo zerbitzu horiekin zerikusia duten alderdiei buruzkoak, ahalik eta zehatzen ematea.

6. Isurketak muga eta baldintza kualitatibo zein kuantitatiboan barruan egitea, hain zuzen ere, indarrean dagoen legediak eta Berganzoko Administrazio Batzarrak onartzen dituen arauak ezarritakoen barruan.

7. Ezin izango da isuri saneamendu saretik gai arriskutsurik, hondakin toxikorik edo araudi bereziek araututakorik edo aplikagarri den legeria orokorrak ezarritako ezaugarriak edo ezaugarri bereziak betetzen ez dituen gairik, ez eta hiri hondakinik edo antzekorik ere, nahiz eta alde zuzenetik birringailuetatik igaroarazi.

8. Arreta areagotu egin behar da iturburuetatik hurbil dauden inguruetan, eta ezingo da isuri gairik kontsumorako ura, zuzenean edo iragazita, uhertu, kutsatu edo pozoitu dezakeenik, ez eta ur hori uhertu dezakeen jarduerarik egin ere.

IV. Harpidetza polizak

7. artikulua

Edateko urez hornitzen duen zerbitzua edo hondakin uren saneamendu zerbitzua erabili nahi duen pertsona edo erakunde orok administrazio batzarrari eskatuko dio baimena, eta administrazio batzarrak instalazioek bete beharreko baldintzak jakinaraziko dizkio. Eskaera egiten duena ez bada finkaren jabea, jabearen baimen idatzia aurkeztu beharko du.

8. artikulua

Erabiltzaileak harpidetza polizak sinatu arte ez da ez ur hornidurarik, ez saneamendu hargunerik egingo.

9. artikulua

Zerbitzuak harpidedunekin izenpetuko du beti hornitze kontratua, eta baldin eta harpidedunak ez badira instalazio horiek jarri behar diren finken jabeak edo edukitzaileak, ezinbestekoak diren instalazioak beren kargura egiteko beharrezkoak diren baimenak lortu beharko dituzte.

10. artikulua

Harpidetza polizek ez dute epe mugarik izango, baina erabiltzaileak, zerbitzua utzi nahi izanez gero, baja eman baino hilabete lehenago jakinarazi beharko du hornitze kontratua bukatutzat eman nahi duela.

Hornitze eta/edo saneamendu zerbitzuak kausa hauetako edozeinengatik azkenduko dira:

1. Harpidedunak berak formalki eskatzen badu etetea, eta hori egiaztatuko da administrazio batzarrean eskaera idatzia aurkeztuz, finKaren titularrak berak edo legez baimendutako pertsonaren batek sinatuta. Eteteak sortutako gastuak harpidedunak ordainduko ditu.

2. Kontratuak epe jakin baterako balioa izanik, epe hori bukatzen bada.

3. Polizaren titularrak jabetza edo erabilera eskubideak galtzen baditu zerbitzuak jasotzen dituen lokal, finka edo esparruaren gainean, edo hiltzen bada. Hala ere, harpidedunak, ez badauka zorrik administrazio batzarrarekin dituen betebeharrak ekonomikoetan, poliza eskualdatu ahal izango dio lokal bera erabiliko duen beste pertsona bati, kontratatutako baldintza beretan.

11. artikulua

Zerbitzuan baja eman eta gero hornidura berriro hasi nahi izanez gero, beste harpidetza poliza bat izenpetu beharko da.

V. Hornidura

12. artikulua

Zerbitzuak harpidedunarekin batera ezarriko ditu kontagailuaren neurriak eta ezaugarriak, kontuan hartuta urez hornituko den higiezinaren, lokalaren edo gelaren baldintzak.

13. artikulua

Erabiltzaileak ezingo du aldatu jasotzen duen uraren erabilera, aldeztatik beste helbururako harpidetza poliza izenpetu gabe. Erabiltzaileak, era berean, ezingo du funtsezko aldaketarik egin instalazioaren ezaugarrietan, ez eta kontagailua bere kabuz aldatu edo ordezkatu ere; ezingo die, orobat, urik eman beste pertsona edo erakunde batzuei, ez eta hornidura banatu ere abonatuaren ustezko maizter edo errentarien artean.

14. artikulua

Modu hauetan hornitu ahal izango da edateko urez.

1. Etxeko erabilerarako kontagailuaren bidez, hau da, elikadurarako eta norberaren garbiketa eta higienarako kontagailuaren bidez.

2. Industria erabilerarako kontagailuz:

a) Ura higieze garbiketarako bakarrik erabiltzen duten industria eta saltokiak.

b) Ura osagai edo lehengai gisa erabiltzen duten industriak (okindegiak, etxaldeak...); hau da, fabrikazio prozesuan.

Aurreko ataletan sartzen ez diren erabileren kasuan, berdin dio industriako erabilerarako edo erabilera publikorako diren, zerbitzuak kasu bakoitzean proposatuko du, eman zaizkion datuen arabera, zein den ezarri beharreko ur emaria, eta emari horren arabera zehaztuko dira baldintzak eta tarifak.

15. artikulua

Zerbitzua ez dago behartuta nekazaritzarako ura ematera, ez eta lore, lorategi edo zuhaitz ustiapeneterako eta igerilekuetarako ere. Harpidetza poliza horiek baimentzeko, nahitaezkoa da zerbitzuak hornidura horietarako beharrezkoak diren ur emari handiak edukitzea; kasu horietan, industriarako tarifaren arabera kobratuko da kontsumoa.

16. artikulua

Abonatupei ur hornidura etengabea eskainiko zaie. Ordenantza honetan xedatutako kasuetan baino ezin izango zaio eten ur hornidura harpidedunari.

17. artikulua

Aurreko artikulua onduetarako, hauek izango dira hornidura eteteko kasu justifikatuak:

1. Hornitzea ezinezko egiten duen matxuraren bat gertatzen bada zerbitzuaren edozein instalaziotan.
2. Ur emari erabilgarria galtzean edo gutxitzean, nolabaiteko gabezia sortzen bada ur horniduran, ur bilketan edo uraren presioan.
3. Biztanleria handitzeak desoreka sortzen badu dauden horniduren eta kontsumo beharren artean, harik eta hornidura horiek handitu arte.
4. Hornidura baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren instalazioetako obrek, konponketek edo hobekuntzek irauten duten bitartean.

18. artikulua

Baliabideak kontuan hartuta, zerbitzuak, egoeraren larritasunaren arabera, ahalik eta azkarren jakinaraziko die harpidedunei hornidura berehala eten edo murriztuko duela, bai eta zerbitzua etenda egongo den denbora zehaztu ere. Larrialdi kasu garbietan edo ezinbestean soilik utz dezake zerbitzuak irregulartasunaren berri duen unean bertan ohartarazpena egin gabe; horrelakoetan, gerora egin beharko du, ahal balitz, etenaren arrazoien eta ustez iraun lezakeen denboraren berri emanez.

VI. Harguneak

19. artikulua

Hargunea da ura edo saneamendua eramaten duen adarra, hurbilen dagoen banaketa horditik hornitu nahi den higiezinera. Adar horren hobi eroalearen ezaugarriak izango dira hornitu beharreko ur bolumenaren eta/edo saneamenduaren arabekoak; ur hargune bakar batetik horniketa ugari egin daitezke finka berera.

20. artikulua

Adarraren edo hargunearen ezaugarriak, haren instalazioa, zainketa eta mantentze lanak, beraz, erabiltzaileak, higiezinaren egileak edo finkaren jabeak kontratatuko ditu zerbitzuarekin, baina beti izan behar du administrazio batzarraren ikuskatze teknikoaren menpean. Adarra edo hargunea zerbitzuaren ikuskatzaile teknikoaren menpean jarriko da, eta eskatzailearen kontura. Eraikinak edateko ura banatzen duen sarerik edo saneamendurik ez dagoen eremuetan egiten badira, eta obrak egiteko baimena administrazio batzarrak eman badu, sare berria eskatzailearen kontura izan dadila eska daiteke, baina zerbitzuaren ikuskatze teknikoaren menpe egin beharko da.

Ondorio horietarako, edateko uraren hargune guztiek erregistro giltza bana izango dute bide publikoan, eta zerbitzuak bakarrik erabili ahal izango du, ezin izango baitute manipulatu ez harpidedunek, ez jabeek, ez eta hirugarren pertsonak ere. Higiezinaren fatxadetan edo kontagailuan ixteko giltza bat jarriko da, eta "irekita" edo "itxita" posizioetan zigitatuta egongo da. Debekatuta dago hori ukitzea, instalazioen barruan matxuraren bat gertatzen denean izan ezik. Ixteko giltzaren zigilua hautsiz gero, berehala eman beharko zaio horren berri zerbitzuari; bestela, ordenantza honetan eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako erantzukizuna eskatuko da.

21. artikulua

Oro har, adar edo hargune bat egongo da finka, eraikin edo higiezin bakoitzari zerbitzua emateko. Higiezinaren zati bateko maizter edo errentari batek hornidura berezi edo banakakoa nahi badu, eta horretarako arrazoirik badago, jar dezake hargune hori, baina administrazio batzarrak aldeko txostena eman ondoren.

22. artikulua

Jabeek, eraikitzailleek edo erabiltzaileek ixteko giltzatik abiatuta jarriko dituzte instalazioak, hau da, finkaren fatxadatik edo mugatik aurrera; horrela, ur ihesik egonez gero, ura nagusiki bide publikora isuriko da, eta ez ditu kaltetuko, ez higiezina, ez barnean dauden gauza edo instalazioak, eta, halakorik gertatuz gero, erantzukizuna haiena izango da soilik.

23. artikulua

Kontratua amaitutakoan edo deuseztatutakoan, adarra libre geratuko da jabearen esku; baina hark bost egunen buruan jakinarazi behar dio administrazio batzarrari, era frogagarrian, adarra bide publikotik kentzea erabaki duela, zeren, osterantzean, esan nahiko baitu adar hori ez zaiola interesatzen, eta administrazio batzarrak egoki deritzen neurriak hartu ahal izango ditu.

VII. Kontagailuak

24. artikulua

Edateko ur horniduraren kontagailuak eraikin edo finka bakoitzaren kanpoko aldean jarriko dira, bat harpidedun bakoitzeko; guztiak ere toki egokian eta erraz iristeko lekuan. Horretarako, kontagailuak konpartimentu edo kutxa batean egongo dira, bateria sisteman edo antzeko beste batean; horrela, zerbitzuko langile irakurleak erraz eta aldi bakar batean apuntatu ahal izango ditu kontagailu guztien zehaztasunak. Ixteko bi giltzaren artean jarriko dira kontagailuak, hartara, matxurarik gertatuz gero, zerbitzuko langileek erraz kendu eta berriro jarri ahal izan ditzaten. Kontagailutik abiatuta, hargunea zuzenean joango da harpidedunaren instalazioetara, inolako adarrik gabe. Erabat debekatuta dago kontagailu bera harpidedun batek baino gehiagok erabiltzea.

25. artikulua

Administrazio batzarrak ezarriko ditu harpidedunak erabili behar duen kontagailu mota, haren diametroa eta kokagunea. Kontagailu guztiek legez onartutako sistemetakoak izan behar dute, eta Industriako Lurralde Ordezkaritzak ofizialki egiaztatuko ditu jarri aurretik. Jarri ondoren, eta nahiz eta erabiltzailearenak izan, zerbitzuko langileek bakarrik manipulatu ahal izango dituzte; horretarako, behar bezala zigilatuko dira jartzen diren bakoitzean.

26. artikulua

Kontagailua zaindu egin behar da, egoera onean egon dadin eta ondo funtziona dezan. Administrazio batzarrak beharrezko jo adina ikuskatze egin dezake, bai eta egokitze jotzen dituen konponketak ere, eta konponezina den matxuraren bat gertatuz gero, hura aldatzera behartu dezake erabiltzailea.

27. artikulua

Kontagailua abonatuarena izango da, baina instalazioa administrazio batzarraren zuzendaritza teknikoaren menpean egingo da; matxuraren bat gertatuz gero, zerbitzuak baizik ez du izango eskuztatze eta konpontze eskumena, baina konponketa abonatuaren kontura izango da.

28. artikulua

Iruzurra izango da edozein manipulazio, abonatuak edo administrazio batzarraren baimenik ez duen pertsonaren batek kontagailuan, hargunean nahiz instalazioetan egina, ura kontagailutik pasa ez dadin edo egindako kontsumoa behar bezala jaso ez dezan.

VIII. Barruko instalazioak

29. artikulua

Kontagailutik aurrera, harpidedunak nahi duen eran bana dezake ura bere erabilerarako, eta nahi duen eran egin horretarako lanak, zerbitzuak eskulanean eta beharrezkoak diren materialetan parte hartu gabe; hala ere, zerbitzuak instalazioa ontzat eman beharko du, hornidura erabat ondo egin dela bermatzeko, eta eskatzaileari laguntza eta aholkua eman diezaioke egiten dituen eskaeretan.

Administrazio batzarraren ikuskatze teknikoaren menpe egongo da barruko banaketa, edozein unetan zuzen dagoela egiaztatzeko, eta iruzurrak eta kontraturiko kontsumoan gerta daitezkeen gabeziak saihesteko.

30. artikulua

Harpidetza poliza bakoitzari dagokion barneko instalazioa ezin zaio lotu beste jatorri bateko ezein sare, hodi edo banaketari. Era berean, ezin izango zaizkio lotu beste harpidetza poliza batetik datorren instalazioari, ez eta Administrazio Batzarraren ura nahastu ere haren iritziz berme tekniko edo sanitarioz ez duen urarekin.

31. artikulua

Erabiltzaileak andel hartzaile, erregulatzailer edo erreserbakoak jar ditzake barruko banaketarako. Biltegi horiek txukun eta desinfektaturik mantendu behar dira, eta erabiltzailea izango da horiek sor dezaketen kutsaduraren erantzule. Gainera, ura galtzea saihesteko sistema automatiko edo eskuzkoak eduki behar dituzte, nahiz eta ur hori kontagailuak erregistratuta egon; horretan ardurarik gabe jokatzeko zerbitzuaren nahastetzat hartuko da.

32. artikulua

Era berean, presio ekipoak edo bestelako artikuluko teknikoak jar daitezke beren ezaugarrienatik hala komeni zaien higiezinetan, kontsumo aukerak orekatzeko hargune beretik ura hartzen duten abonatuaren artean edo barruko instalazio baten zati desberdinen artean.

Tresna horiek nahitaezkoak izango dira garaiera edo beste baldintza tekniko berezi batzuk direla-eta edateko uraren hornidura egokia bermatu ezin duten eraikinetan.

Edozein prozedura tekniko erabiltzen dela ere, honako printzipio hau bermatu behar da nahitaez: edateko ura higiezinaren sarrerako hargunean kokatuta dagoen pasoko giltzatik igaro eta berehala pasatuko da kontagailu guztietatik, iruzur egiteko edo zerbitzua oztopatzeko aukerarik egon ez dadin, eta aplikazio horrek ezin dio sare nagusiko beste ezein harpideduni eragin.

IX. Kontsumoa

33. artikulua

Harpidedunak edateko ura kontsumituko du harpidetza polizan ezartzen diren baldintzen arabera eta ordenantza honetan horniketaren ezaugarriez zehaztutakoaren arabera.

34. artikulua

Kontagailuak erregistratzen duena hartuko da benetako kontsumotzat; kontsumo hori arauzko minimoa baino txikiagoa denean, minimo hori hartuko da kontsumitutzat, kontagailuak markatzen duena gorabehera.

35. artikulua

Kontagailuak matxuraren bat izan duelako edo ondo ez dabilelako ezin bada jakin zenbat ur kontsumitu den, ulertuko da aurreko urteko aldi bereko ordainagirian agertzen dena kontsumitu dela, eta, horrelakorik ezean, azken hiru ordainagirien batez bestekoa. Oro har, benetan kontsumitu dena zenbatesteko ahalegina egingo da, baina sistema hori salbuespenezkoa izango da, eta aldi baterakoa. Horrelakoetan, administrazio batzarrari dagokio kontagailua al bait azkarren aldatzea, eta erabiltzaileari, antzeman dituen akatsak zerbitzuari lehenbailehen jakinaraztea.

36. artikulua

Erabiltzaileren bat ados ez badago kontagailuak erregistratzen duen kontsumoarekin, kontagailua aztertzeko eta egiaztatzeko eskatuko dio administrazio batzarrak Industria Ordezkaritzari; erregistratutakoa ondo badago, harpidedunak ordainduko ditu gastuak; txarto badago, berriz, zuzendu egingo da okerra.

X. Saneamendua

37. artikulua

Aurreko ataletan xedatutako guztiak aplikatuko zaizkio saneamendu zerbitzuari, salbu eta, izaera bereziarengatik, beren-beregi hornitze zerbitzuari dagozkionak. Horiez gainera, hurrengo artikuluetan zehazten direnak ere aplikatuko zaizkio.

Aurreko paragrafoan zehaztutakoetarako, ura dela-eta baliatzen diren "hornidura"; "banatze" eta "hornitze" hitzak, saneamendua dela-eta baliatzen diren beste hauen parekoak izango dira, hurrenez hurren: "huste"; "saneamendu" eta "isuri".

38. artikulua

Berganzoko Administrazio Batzarra ez dago behartuta isuri kota eskaintzera sarearena ez den sakoneran. Isuria behezagoko kotan egin behar bada eta kota hori kolektorea baino behezagoko badago, eskatzaileak ordaindu beharko ditu hondakin urak jasotzeko ezarri beharreko gailua jartzea, mantentzea eta haren kontsumoak.

39. artikulua

Administrazio batzarrak egokien deritzon lekuan lotuko zaio saneamendu hargunea saneamendu sareari, ahal dela lehendik dauden kutxatiletan. Saneamendu hargunearen diseinua eta eraikuntza estankoa izan beharko dira, batez ere, saneamendu sareari lotzen zaion lekua.

Administrazio batzarrak eska dezake hargunearen hasieran eta sareari lotzen zaion lekuan kutxatilik jartzea, bai eta emarien kontrol eta kopururako kutxatilik egitea eta neurtzeko sistemak jartzea ere. Era berean, administrazio batzarrak eska dezake eraikinaren barruan hargune erregistrorako kutxatilik egiteko, berak zehaztutakoaren arabera. Dena dela, egitura aldetik irauteko moduan proiektatu eta egingo dira harguneak, bai eta behar adinako babesarekin ere, bertatik igaroko diren uren agresibitate fisiko edo kimikoaren ezaugarriak aintzat hartuta.

Hala ere, arazo teknikoak edo bestelakoak direla-eta (horretarako, administrazio batzarraren alde aurreko txostena beharko da), ezin bada hargunea egin estolderiaren sare orokorrera, hobi septikoa jartzeko eskatuko zaio interesdunari, eta eskatzaileak ordainduko ditu beti hura egitea, mantentzea, garbitzea edo bestelako gastuak.

40. artikulua

Ur beltzetarako eta euri uretarako hargune bana jartzeko eskatuko du administrazio batzarrak. Horietatik ur beltzena baino ezin izango zaio lotu saneamendu sareari.

XI. Kobratu beharrekoa

41. artikulua

Kobratzeko kopuruen oinarriak ur kontsumoaren eta haren erabileraren arabekoak izango dira, bat etorritz ordenantza honetako tarifen epigrafeetan ezarritakoarekin.

XII. Tarifak

42. artikulua

Harpidedun bakoitzak kontsumitutakoa administrazio batzarrak fakturatuko du, kontzejuak une bakoitzean onartutako tarifak zorrozki aplikatuz.

43. artikulua

Ur kontsumoa edozein dela ere, administrazio batzarrak tasa eta prezio hauek ere kobratuko dizkio harpidedunari: kontagailuaren zainketa, harguneak egitea, instalazioak ikuskatzea, bide publikoan obrak egitea, lotura eskubideak eta kontzejuak "Tarifak" izeneko epigrafean baimendutako beste edozein.

44. artikulua

Eranskinen daude zehaztuta tasa horien tarifak.

45. artikulua

Horniduraren zenbatekoaren fakturazioa urtean behin egingo zaio harpidedunari.

46. artikulua

Aldeetako edozeinek eskritura publikoa egiteko eskatuz gero, harpidedunak ordainduko ditu gastuak (administrazio batzarrarentzako kopia kautoa barne), bai eta estatuaren, autonomia erkidegoaren, probintziaren edo udalerrriaren aldeko edozein motatako zerga eta kontribuzioak ere, sortuak edo sortzeke daudenak, polizari dagozkionak zein, horren menpe egonik, eranskinetan eta oharretan agertzen den kontsumoari buruzkoak.

47. artikulua

Kontzejuaren hornidurako edateko ura edo saneamendu zerbitzua erabiltzean edozein huts-egite larri eginez gero, harpidetza poliza berehala hutsalduko da, eta ur hornidura eten; egintza horiek, gainera, toki ogasunari egindako iruzurra izan daitezke.

48. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, falta astuntzat joko dira egintza hauek:

1. Hitzartutako ur horniduraz abusatzea, harpidedunaren ohiko jarduerarekin bat ez datozen ur emariak kontsumituz, justifikatutako kausarik gabe. Ez da justifikatutako kausa izango abonatuaren instalazioetan matxura edo ur ihesa egotea, kontsumoa neurririk gabe handitzea eragiten duena.

2. Erabilera txarren bidez horniduraren erregulartasuna oztopatzea, erabilera horiek beste erabiltzaile batzuen hornidura eragotz badezakete murrizketen edo hornidura mugatuen garaian.

3. Urari hitzartutakoa ez beste erabileraren bat ematea.

4. Zerbitzuaren baimenik gabe ura hirugarrenei ematea, dela dohainik, dela kostu bidez.

5. Zerbitzuaren ura beste aprobetxamendu batzuetatik ateratzen denarekin nahastea, batez ere nahasketaren ondorioz kutsadura arriskua sortzen bada.

6. Zerbitzuaren baimenik gabe zerbitzuko langileei ordaintzea, nahiz eta langile horiek harpidedunari egindako lanengatik izan.

7. Harpidedunaren instalazioak, ur harguneak edo kontagailuak dauden lekuetara langileei sartzeko ez uztea, baldin eta zerbitzuari iruzur egin zaiola edo zerbitzua eragotzi dela susmatzeko arrazoirik badago.

8. Kontratuaren epea amaitu ondoren edo kontratua deuseztatu ondoren ura kontsumitzen jarraitzea.

9. Justifikatutako arrazoirik gabe pasoko giltzak itxi edo irekitzea, zigilaturik egon edo ez.

10. Instalazioak manipulatzeko, benetan kontsumitu den ur emaria kontagailuetan erregistratu ez dadin.

11. Justifikaziorik gabe ordaintzeari uko egitea kontsumitutako uraren zenbatekoa edo edateko uraren kontsumoarekin lotutako eskubideak eta tasak.

Justifikatu gabeko uko egitetzat jotzen da ordainketa hiru hilabete baino gehiago atzeratzea, nola eta ez dagoen erabakitzeke erreklamazio aski funtsatu bat, ordaindu beharreko diru zenbatekoari edo beste edozein gairi buruz.

12. Administrazio batzarrak hala eskatu arren, ur kontagailurik ez jartzea.

13. Murrizketak daudenean ura erabiltzea nekazaritzan, lore ustiapenetan, lorezaintzan, zuhaiztietan edo igerilekuak betetzeko.

49. artikulua

Falta arinak izango dira egiteak edo ez-egiteak, baldin eta ez badira aurreko artikuluan zehaztutakoak bezain larriak. Falta arinak behin eta berriro egitea falta astun izango da.

50. artikulua

Administrazio batzarrak, falta arinengatik, 750 euro arteko isuna jarri ahal izango du; astunengatik, 1.500 euro artekoa, eta oso astunengatik, 3.000 euro artekoa.

51. artikulua

Iruzurra dakarten egitateengatik espedientea abiaraziko da, eta toki administrazioaren arloko xedapenen arabera izapidetuko da.

Delitutzat jotzen diren egintzak, hala nola zigiluak apurtzea, instalazioak suntsitzea, urak kutsatzea eta zigor kodean jasotzen diren gainerakoak, jurisdikzio arruntean salatuko dira, eta arau hauste oso larriak izango dira.

52. artikulua

Zordunak indarrean den legedian ezarritako premiamendu prozeduran sartuta geratzen dira.

Edateko uraren hornidura edo saneamendua ordaintzeari behin eta berriro uko egiten bazaio, aukeran izango da hornidura etetea, legeak horren gainean ezarritakoaren arabera.

53. artikulua

Harpidedunak baino ez du izango erantzukizuna neurriz gain kontsumitu izanagatik hirugarrenei sortutako kalteengatik.

XIII. Xedapen gehigarriak

Administrazio batzar honek, egokitzapen aldi bat igaro ostean, beretzat gordetzen du zerga ordenantza honetan aldaketak egiteko eskubidea, lege ezarritako prozedurak betez.

Hargunearen prezioa izango da gainerako harpidedunek dagoeneko eginda duten ordainketaren zenbateko osoa, alegia, 2.448 euro, eta kostu horri azpiegiturak eta zoladura berritzeko lanak bukatu zirenetik hargune berria egin bitarteko Kontsumo Prezioen Indizearen igoera erantsiko zaio.

XIV. Xedapen iragankorrak

Ordenantza hau indarrean jartzen denean sinatuta dauden kontratuak ofizios egokituko zaizkie ordenantzaren xedapenei, eta erabiltzaileak behartuta daude bertan zehazten diren arauak betetzera; hala ere, zerbitzuak, kasuan kasu erabaki dezake harpidedunek bereganatuta dauzkaten bidezko eskubideak errespetatzea. Edonola ere, eskubide horiek iraungi egingo dira lehendik indarrean zegoen kontratua amaitzen denean.

XV. Azken xedapena

Ordenantza honi eta beronen eranskinari 2022ko uztailaren 30eko bilkuran eman zitzaien hasierako onespina, eta jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsita geratu da; indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean, eta hala egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Ordenantzaren eranskina

Urteko tarifak

Edateko uraren hornidura

Etxeko erabilera:

Zerbitzu kuota finkoa 24 euro/kontagailu

Kontsumo kuota

120 metro kubo arteko kontsumoa 0,66 euro/metro kubo

120 metro kubo baino gehiago 1,30 euro/metro kubo

Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera:

Zerbitzu kuota finkoa 24 euro/kontagailu

Kontsumo kuota 0,66 euro/metro kubo

Industria eta hirugarren sektorearen erabilera:

Zerbitzu kuota finkoa 48 euro/kontagailu

Kontsumo kuota 1,32 euro/metro kubo

Saneamendua erabilera guztietan:

Zerbitzu kuota finkoa 28 euro/kontagailu

Kontsumo kuota

Urteko 120 metro kubo arteko kontsumoa 0,62 euro/metro kubo

120 metro kubo baino gehiago 0,72 euro/metro kubo

Berganzo, 2022ko urriaren 11

Lehendakaria

EMILIO MANUEL LÓPEZ GUTIÉRREZ